

# ***BIODIBERTSITATEA***

**ARETXABALETAKO UDALARI  
ZUZENDUTAKO PROPOSAMENAK  
ETA  
UDALAREN ERANTZUNAK**



## **UDALARI ZUZENDUTAKO PROPOSAMENAK**

### **1. ZIKLOKO IKASLEAK**

- 1. Parkean dauden landare inbaditzaileak zuztarretatik ateraste**
- 2. Zuhaitz bakoitzari dagokion izena jartzea.**

### **3. eta 4. MAILAKO ORDEZKARIAK**

- 3. Edozein motako lanak egiterakoan animalien gaitzespena: errepideak azpitik pasatzeko tunelak, gainetik pasatzeko pasabideak...**
- 4. Animalientzako babeslekuak jarri.**
- 5. Landareak hondatzen badituzte, birlandatu.**

### **5. eta 6. MAILAKO IKASLEAK**

- 6. Kiroldegi inguruko sasi-akaziak kendu eta bertako zuhaitzak landatu.**

- 7. Komentu atzetik elizarainoko dagoen tartearen behaketa egin eta zerbait egin daitekeen aztertzea (ibaia guztiz kanalizatuta dago).**
- 8. Urari gerizpea egiten diote eta erreka bazterretako zuhaitzei adarrak ez moztea. (Makal batzuk era desegokian moztuta ikusi genituen).**
- 9. Nahiz eta uraren kalitatea ona izan, zabor ugari dago. Noizean behin erreka garbitzea.**

#### **DBH 1. MAILAKO IKASLEAK**

- 10. Landa zabalean (Urkulun) udalak dituen eraikinak berrizterakoan, kontutan izan hegaztien bizilekuak egon daitezkeela.**
- 11. Gaur egun jartzen diren alanbrezko laukidun itxiturak ez dira egokiak, animalien mugikortasuna oztopatzen dutelako. Baserritarrei informazio hau zabaldu neurriak har ditzaten.**
- 12. Herritarrei landare inbaditzaileen inguruko informazioa eman.**

**13. Herritarren artean basoei buruzko informazioa zabaldu eta udalak dituen basoetan adin guztietako zuhaitzak daudela ziurtatu.**

**DBH 3. MAILAKO IKASLEAK**

**14. Lurrak 2. eta 3.sektorerako okupatu behar direnean kontuan hartu galtzen denaz eta ordezkatzeko saiatu berdeguneak, zuhaitzak landatuz, ...**

**15. Larrin plaza eraikitzen hasita baina amaitu gabe dagoen etxe horretarako konponbide bat bilatzea.**

**UDALAREN ERANTZUNAK:**

- **Parkean dauden landare inbaditzaileak zuztarretatik ateratzea.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariak parte hartu dute eta martxan dago landare inbaditzaileen ezabaketa. Zentzu horretan, badakigu, ardura hori duten Foru Aldundiko langileak pasatzekoak direla herrian ditugun Panpako lezka (*Cortaderia selloana*) landareak ezabatzea.

- **Zuhaitz bakoitzari dagokion izena jartzea.**

Bainuetxen zuhaitzi bat dago zuhaitz ezberdinez osatuta eta hauen izenak plaketan daude jarrita.

Dena den, lan hau eskoletan egiteko aukera ere baduzue eta hori oso aberasgarria izango litzateke, bai eskolarentzat bai herriarentzat.

### **3. ETA 4. MAILAKO ORDEZKARIAK.**

- **Edozein motako lanak egiterakoan animalien pasabideak, errepideak azpitik pasatzeko tunelak, gainetik pasatzeko pasabideak...**

Egia esan, azpiegitura handien eraikuntzaren ardura ez da udalarena. Hala ere, administrazio garen heinean, halako egiturak egiten diren kasuetan, basabizitzarako halako babes neurriak hartu behar direla ziurtatzea ere badagokigu.

Momentu honetan ez dira errepide berriak egiten baina, legez, animalien pasabideak, kokalekuak, etab. kontutan hartu beharko lirateke mugikortasun eta bide azpiegiturak egiten direnean. Adibidez, errepideen azpiegitura handietan animalien pasabideak ekiditeko itxiturak dituzte eta hauek animalientzako pasabideak izaten dituzte puntu konkretuetan. Neurri hauek berri xamarrak dira eta, azpiegitura zaharragoak eraiki zirenean ez ziren kontuan hartu. Gaur egun berriz kontuan izaten dira dena den, zentzu horretan lan asko daukagu egite

- **Animalientzako babeslekuak jarri.**

Ardura hori ez da Udalarena bakarrik. Hala ere, Aretxabaletan, Urkulu babestuta dago eta neurri bereziak hartu dira bertako fauna eta flora babesteko.

- **Landareak hondatzen badituzte, birlandatu.**

Urtero hondatutako landareak birlandatu edo ordezkatzeko dira honetarako garaia heltzen denean.

### **5. ETA 6. MAILAKO IKASLEAK**

- **Kiroldegi inguruko sasi-akaziak kendu eta bertako zuhaitzak landatu.**

Egia da sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*) landare inbaditzailea dela eta, hartara, bere ezabaketarako neurriak hartu beharko liratekeela. Foru Aldundiko adituekin kontsulta egin dugu, eta argitu digute, batetik, eurak orain panpako lezkaren aurkako neurriekin dabilzala buru belarri eta bestetik, erreketan ardura duen URA, uraren euskal agentzia, *Fallopia japonicaren* aurkako borrokan dabilela erreketan.

Bestalde, kiroldegi inguruko sasi-arkaziei dagokionez, baloratu beharra dago Deba errekarari itzala eginez betetzen duten funtzioa ez ote dugun lehenetsi behar, haiek bota aurretik.

- **Komentu atzetik elizarainoko dagoen tartearen behaketa egin eta zerbait egin daitekeen aztertzea (ibaia guztiz kanalizatuta dago).**

Lortzen ari den lehenengo helburua uraren kutsadurarekin bukatzea da. Bigarren fasean hormigoizko zolata kendu eta alboetan elementu naturalez

(harriak...) osaturiko hormak egitea izango litzateke helburua bertan animaliak eta landareak bizi ahal izateko.

- **Urari gerizpea egiten diote eta erreka bazterretako zuhaitzei adarrak ez moztea. (Makal batzuk era desegokian moztuta ikusi genituen).**

Gipuzkoako Foru Aldundiak enpresa espezializatua bidaltzen du adarrak mozteko epea denean eta inauste selektiboa egiten dute. Egia da azken inausketa, gure ikuspegitik, bortitz xamarra izan zela (makalak enbor hutsean utzi zituzten). Zentzu horretan URA agentziakoekin kontaktua egiteko konpromezua hartzen dugu, inausketak egitera doazenean, horren inguruko informazioa jaso eta kontrastatu ahal izateko.

- **Nahiz eta uraren kalitatea ona izan, zabor ugari dago. Noizean behin erreka garbitzea.**

Udal langileek erreken garbiketa egiten dute noizean behin eta tamaina handiko gauzak ikusten direnean momentuan kentzen dira.

URRIaren 13an auzolanean erreka-garbiketa antolatu genuen Debagoieneako herri guztietan. Aretxabaletan 9 lagun azaldu ginen, soilik. Lan polita egin genuen hala ere. Gehien ikusi genituen zaborrak goxokien plastikozko zorroak izan ziren, milaka, haur eta gazteek kontsumitzen dituzuen horiek hain zuzen. Kontuan hartu, maiz zuetako askok poltsa horiek lurrera botatzen dituzuela inongo lotsa barik eta, arrazoi asko tarteko, errekan bukatzen dutela.

Hortaz, erreka garbi edukitzeak denon konpromezua eskatzen du: batetik, hondakin bakoitza bere edukiontzira botatz eta, bestetik, antolatzen diren erreka garbiketetan herritar guztiok parte hartuaz.

### **DBH 1. MAILAKO IKASLEAK**

- **Landa zabalean (Urkulun) udalak dituen eraikinak berrizterakoan, kontutan izan hegaztien bizilekuak egon daitezkeela.**

Kontutan hartzen dira.

- **Gaur egun jartzen diren alanbrezko laukidun itxiturak ez dira egokiak, animalien mugikortasuna oztopatzen dutelako. Baserritarrei informazio hau zabalduta neurriak har ditzaten.**

Lurzoru pribatuetako itxituren helburua euren nekazaritza-ustiategi, animaliak... babestea da. Zentzu horretan, udaletik gauza gutxi dugu egiteko, ez bada zuek proposatu moduan informazioa ematea. Hala ere, kasu gehienetan alanbrezko laukidun itxiturak errepideen inguruan erabiltzen dira eta ez baso edo beste lurzoruen kontra dauden itxiturretan.

- **Herritarrei landare inbaditzaileen inguruko informazioa eman.**

Puntu hau erlazioa dauka lehenengo puntuarekin. Kanpaina egiten bada herritarrei landare inbaditzaileen inguruko informazioa eman daiteke.

Foru Aldundiak honen inguruko informazioa banatu zuen duela ez urte asko.

- **Herritarren artean basoei buruzko informazioa zabalduta eta udalak dituen basoetan adin guztietako zuhaitzak daudela ziurtatu.**

Basoetako informazioa landa-lur planoetan dago. Basoak era naturalean birsortzen dira eta edade askotako zuhaitzak daude. Baso ustiaketan, oster, adin beretsuko zuhaitzak izan ohi dira, helburua egurra ateratzea delako.



**DBH 3. MAILAKO IKASLEAK**

- **Lurrak 2. eta 3.sektorerako okupatu behar direnean kontuan hartu galtzen denaz eta ordezkatzeko saiatu berdeguneak, zuhaitzak landatuz, ...**

Onartzen diren planetan oreka batetara heltzea da helburua. Udala, herritarren parte hartzea sustatu nahian dago, horrelako erabakiak herritarren artean hartu eta eztabaidatzeko. Zentzu honetan, 2014. urteari begira Hirigintza Plan Orokorrari heltzeko asmoa dago. Plan horretan etorkizuneko Aretxabaleta marraztea da asmoa. Herritarren aportazioak ongi etorriak izango dira.

- **Larrin plaza eraikitzen hasita baina amaitu gabe dagoen etxe horretarako konponbide bat bilatzea.**

Momentuan geldi dago etxebizitzaren salmentak geldi daudelako krisia dela eta.

Ingurumen saileko zinegotzia  
Izp.: Inigo Louvelli

